- 7.- Utiliza el transporte público. Consulta los servicios especiales: www.euskotren.eus y www.lurraldebus.eus.

8.- SOKAMUTURRA

***Recorrido:** Maala, San Frantzisko, Kalebarren plaza, San Bartolome, Errosario, Kalegoen plaza, Santa Ana y San Ignazio.

***Día 25:** 8:00-11:00.

***Día 27:** 8:00-11:00.

***Día 28:** 8:00-11:00.

***Está terminantemente prohibida la participación de menores de 16 años en las sokamuturras.**

- 9.- No se podrán realizar entrenamientos de goitibeheras. Durante la prueba, el tráfico permanecerá cerrado en San Roke-Arregitorre-Erretsundi.

10.- TRÁFICO EN LA CIUDAD, DURANTE LAS FIESTAS:

Modificaciones y cortes de tráfico en diferentes zonas del municipio: se informará sobre estos cambios en www.elgoibar.eus, así como en el tablón de anuncios del SAC (Santa Ana 2).

- 11.- Prohibido hacer torres y saltar desde las alturas, y todo acto que pueda poner en peligro la integridad física de nadie.
- 12.- Usa los servicios públicos para mantener las calles limpias.
- 13.- El 26 de agosto, de 16:30 a 18:30: REPARTO DE CAMISETAS DE LOS DÍAS DEL PÚBLICO INFANTIL Y ADOLESCENTE, en Bolatokiko parkea.

PRESTA ATENCIÓN a tu bolso, cartera y teléfono móvil

ARDURAZ JOKATU



JAIETAN ERE EUSKARAZ



GUZTIONTZAKO JAIK

ALAITASUNEZ BETEAK



ERRESPETUZ



BELDUR BARIK GOZATU



BAIETZIK GABE EZETZA DA!



BIZI JIAIAK BERDINTASUNEAN



HAURTZAROKO OROITZAPENAK... PLAZA TXIKIKO TIGREA

RECUERDOS DE LA INFANCIA... EL TIGRE DE LA PLAZA TXIKITA

Imajinatzen dut San Bartolome jaietako programarako idatzitako artikulu honen goiburua irakurtzean batek baino gehiagok jarriko zuen harridura aurpegia. Tigre bat Elgoibarren? Beste animaliairen bat izan daiteke, baina, tigre bat? Beste albiste faltsu bat dirudi, zoritxarrez, azken aldian guretzat oso ohikoa dena.

Baina ez. Elgoibar ez da Bombay, ezta Sumatra ere; hala ere, benetako Bengalako tigre baten gorpua gorderik dauka errailetan, plaza Txikiko (Aita Agirre plaza) lurrazpian. Bertatik bertara bizi izan nuen istorio bitxia da, eta atzo gertatu izan balitz bezala gogoratzen dut.

Istorio honek bi zutabe ditu: alde batetik, zirkuaren mundua -sarritan gurera etortzen ziren zirku zoragarri haiek-, eta bestetik, herriko albaitari gogoangarri izan zen Manuel Ubiria Elorza.

Baina has gaitezen atalka: joan den mendeko berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkadetan zirku ugari etortzen ziren Elgoibarrera, hainbat gauzatarako erabiltzen zen plaza Txikian instalatzen ziren zirkuak. Circo Romano, Internacional, Ruso, Monumental... ziren gurera etortzen ziren zirku konpainiak, eta lilura izugarria sortzen zuten elgoibartarren artean. Erne!, zirkuetz ari naiz, karabana asko eta karpa handiak zituzten zirkuetz, eta ez, komediez; izan ere, plaza Txikian eskaintzen zituzten haiek ere emanaldiak. Agian, beste batean hitz egingo dugu horiei buruz.

Aparteko gertakaria zen zirkuaren herrira iristea. Zirrara ikaragarria sortzen zigun karabanez eta zirku materiala garraiatzen zuten kamioiez osatutako ilara izugarria eta animalia basatiak

Imagino la cara de extrañeza que habrá mostrado más de uno al leer el encabezamiento de este artículo escrito para el programa de fiestas de San Bartolomé. ¿Un tigre en Elgoibar? Cualquier otro animal puede ser ¿pero un tigre? Parece una noticia falsa más, a las que, por desgracia, tan acostumbrados estamos últimamente.

Pero no. Aunque Elgoibar no es Bombay ni Sumatra, guarda en sus entrañas el cuerpo de un auténtico tigre de Bengala, en el subsuelo de la plaza Txikita (Aita Agirre plaza). Es una curiosa historia que la viví en primera persona y que la recuerdo como si hubiera acontecido ayer.

Esta historia reposa sobre dos pilares: por un lado, en el mundo del circo -esos maravillosos circos que con frecuencia nos visitaban-, y por otro, en la figura del recordado veterinario local Manuel Ubiria Elorza.

Pero vayamos por partes: en los años cincuenta y sesenta del pasado siglo visitaban Elgoibar numerosos circos, circos que se instalaban en la socorrida plaza Txikita. El Circo Romano, el Internacional, el Ruso, el Monumental... eran compañías circenses que nos visitaban y que causaban una enorme admiración entre

los elgoibarrés. ¡Ojo!, hablo de circos, circos con sus numerosas roulottes y amplias carpas, y no de las comedias, que también actuaban en la plaza Txikita y de las que quizás hablaremos en otra ocasión.

La llegada de un circo a la localidad era un acontecimiento extraordinario. La aparición de aquella enorme fila de roulottes y camiones portando el material circense, así como numerosas



Zirkua egunkarian iragartzeko kartela.
Cartel anunciador en la prensa.

gordetzeko kaiola ugariak agertzen ikustek. Zirkuko karpa plazaren erdian instalatzen zen arren, inguru guztiak okupatzen zituzten zirkuko ibilgailuek. Alde batetik, plaza Txikiaren mendealdeko ertzetik hasi eta Barrutia eta Aizpirineko ortuetaraino; bestetik, Banco Guipuzcoano banketxearen eta Zabaleta anaien tailerraren ingurua. Batzuetan, Kalebarren plaza ere okupatzen zuten. Karabanak eta kamioiak ez ezik, zoologiko bat ere muntatzen zen ikuskizunean parte hartzen zuten animaliekin. Lehoiak, tigreak, elefanteak, zaldiak, hartzak, baita hipopotamo itzel bat ere, guk guztiok miresten genituenak. Kontuan izan behar da oraindik ere urte asko falta zirela zirkuan animaliak erabiltzeko debekua ezartzeko, Animalien Ongizateari buruzko Legea aplikatzearen ondorioz. Herria kartel koloretsuz betetzen zen, ikuskizuna iragartzeko. *“Mundu mailako sekulako zirkuko kontzentrazio erraldoia!! Zirkuairen historian izan den gertakizun artistikorik handiena! Sei urtetan jarraian Suitzako, Frantziako, Italiako eta Holandako ikusleen harridura eta mirespena sortu duen ikuskizuna!”* zioten kartelek.

Zirkuairen bisitak hiru egun irauten zuen gehienez ere. Lehenengoa azpiegitura guztia muntatzeko izaten zen. Langileek, mazo handiak eskuetan hartuta, lurrean itzaltzen zituzten pika handiak, non ezin konta ahala soka lotzen baitzituzten egitura guztiari eusteko. Han egoten ziren zirkuko langile guztiak... eta, nola ez, Montxo Prieto. Montxo gu baino bi urte zaharragoa zen, eta aparta zen benetan: bazekien non eta noiz egon behar zuen. Zirkua iristen zenean, eta arestian aipatu ditudan komediak iristen zirenean ere bai, ez dakigu nola, baina han egoten zen Montxo; kontua da laguntzen hasten zela, eta langileen konfiantza lortzen zuela. Mandatuak egiten zizkien, eta, noizbait, burdindegitik edo dendaren batetik zerbait behar bazuten, Montxo behar zen guztia egiteko prest izaten zuten. Hiru egunez zirkuko familia handiaren kide bihurtzen zen, eta ondorioz, funtzio guztiak ikusi ahal izaten zituen ordaindu gabe; hura zen inbidia hura! Esan berri dudan moduan, artista zen benetan.

jaulas de animales salvajes, nos producía una gran emoción. Aunque la carpa del circo se instalaba en la mitad de la plaza, todos los alrededores eran ocupados por el parque móvil circense. Por un lado, el extremo oeste de la plaza Txikita hasta las huertas de Barrutia y Aizpiri; por otro, la zona del Banco Guipuzcoano y del taller de los Hnos. Zabaleta. También a veces se ocupaba la plaza Kalebarren. Además de las roulottes y camiones, también se montaba un zoológico con los animales que tomaban parte en el espectáculo. Leones, tigres, elefantes, caballos, osos, y hasta un enorme hipopótamo, eran admirados por todos nosotros. Hay que tener en cuenta que todavía faltaban muchos años para la prohibición del uso de animales en el circo, como consecuencia de la aplicación de la Ley de Bienestar Animal. El pueblo se inundaba de coloridos carteles donde se anunciaba el espectáculo. *“¡¡Gigantesca y colosal concentración circense mundial!! ¡El mayor acontecimiento artístico que registra la historia del circo!, El espectáculo que durante seis años consecutivos ha causado el asombro y la admiración de los públicos de Suiza, Francia, Alemania, Italia y Holanda”* rezaban los carteles.



Zirkua Gipuzkoako plaza batean (berrogeita hamarreko hamarkada)
Un circo en una plaza guipuzcoana (años cincuenta)

La visita del circo duraba un máximo de tres días. El primero se dedicaba al montaje de toda la infraestructura. Los operarios, provistos de grandes mazas, clavaban en el suelo enormes picas donde se ataban innumerables cuerdas para sostener todo el entramado. Allí se encontraba el personal del circo al completo... y, cómo no, Montxo Prieto. Montxo era dos años mayor que nosotros y era un auténtico fenómeno: sabía estar en el sitio adecuado en el momento oportuno. Cuando

llegaba un circo, o también las comedias que he nombrado anteriormente, no sabemos cómo, pero allí estaba Montxo; el caso es que se ponía a ayudarles y se ganaba la confianza del personal. Les hacía recados y si en algún momento necesitaban algo de la ferretería o de cualquier comercio, le tenían a Montxo dispuesto para lo que hiciera falta. Durante tres días formaba parte de la gran familia circense, y como consecuencia, podía ver

Behin zirkua muntatuta, ikuskizun handia hasten zen. Trapezistak, animalien hezitzaileak, funanbulistak, malabaristak, akrobatak, eta nola ez, pailazo zoragarriak; guztiak igarotzen ziren gure begi harrituen aurretik. Eta beste gauza bat: egungo zirkugehienek ez bezala, plaza Txikira etortzen zirenek zuzeneko orkestra izaten zuten. Bost edo sei musikarik, goitegi batean jarrita, pistan eskaintzen ziren zirkuko ikuskizun guztiak girtzen zituzten. Imajinatzen dut, musikari haiek, musika tresnak jotzeaz gain, zirkua muntatzen zuten langileak ere izango zirela. Jolas ximpleak egiten genituen eta telebistarik ez genuen garai hartan, guretzat igandeetako zinea edo Lerunen jokatzeko ziren futbol partidak izan ohi ziren entretenimendu bakarra. Horrengatik, liluratu egiten gintuen zirkuko saio batez gozatzeak.

Goazen orain istorio honen bigarren zutabea aipatzera: Manuel Ubiria Elorza, Manolo mundu guztiarentzat. Elgoibarko albaitari titular izan zen 1951tik 1976ra arte. 1921ean jaio zen, eta albaitarien semea eta anaia izan zen. Profesional ikaragarria izan zen, denek ezagutzen eta estimatzen zutena, bereziki, abeltzaintzaren sektoreak. Baserritar asko eta asko joaten zitzaizkion etxera aholku eta laguntza eske! Urruneko baserri asko eta askotara joaten zen inondik inora ere egungoen parekoak ez diren pistetatik barrena! Adeitsua, atsegina zen, eta irribarre egiten zuen etengabe. 1976an Gipuzkoako Albaitaritza Osasuneko Ikuskatzaile Probintzial izendatu zuten, eta, horrela, bera eta bere familia Donostiara joan ziren. Nekazaritzako Probintzia Ordezkaritza izan zen, eta kargu horiek bere balio profesional izugarriaren lekuko dira.

Manolo, Pilar Irustarekin ezkondua, bost seme-alabaren aita izan zen: hiru neska eta bi mutil. San Frantzisko kaleko 2 zenbakiko lehenengo solairuan bizi zen; eta gure familia, berriz, atari bereko hirugarrenean. Bizilagunen arteko gertutasun horren ondorioz, logikoki, adiskidetasun estua sortu zen. Nire kasuan, haurra nintzen arren, Manolok bihozberatasunez eta adeitasunez tratatu ninduen beti. Bere lantokia udaleko albaitaritza laborategian zegoen. Laborategia Azoka Plaza zaharraren atzealdean zegoen, eskuinean, Abdon Gabilondoren saltokiari atxikitako sarreratik sartuta. Jendeak hara eramaten

todas las funciones sin pagar; ¡qué envidia nos daba! Como acabo de decir, era un verdadero artista.

Una vez montado el circo, comenzaba el gran espectáculo. Trapecistas, domadores, funambulistas, malabaristas, acróbatas y cómo no, los inefables payasos, todos desfilaban ante nuestros asombrados ojos. Y una cosa más: a diferencia de la inmensa mayoría de los circos actuales, los que venían a la plaza Txikita contaban con su orquesta en vivo. Cinco o seis músicos, colocados en un altílo, amenizaban todos los números que sucedían en la pista. Me imagino que esos músicos, además de tocar su instrumento, formarían parte también de los obreros que montaban el circo. Para nosotros -en una época de juegos sencillos y sin televisión- el único entretenimiento era el cine dominical o los partidos de fútbol de Lerun. Por ello, el disfrutar de una sesión de circo nos deslumbraba.

Vamos ahora con el segundo puntal de esta historia: el elgoibarrés Manuel Ubiria Elorza, Manolo para todo el mundo, fue veterinario titular de Elgoibar desde 1951 hasta 1976. Había nacido en 1921, siendo hijo y hermano de veterinarios. Fue un excelente profesional, reconocido y apreciado por todos, sobre todo por el sector ganadero. ¡Cuántos baserritarras acudían a su domicilio en busca de consejo y ayuda! ¡Cuántas

visitas a apartados caseríos por unas pistas en absoluto comparables con las actuales! Era de carácter afable, simpático, con una sonrisa permanente. En 1976 fue nombrado Inspector Provincial de Sanidad Veterinaria de Gipuzkoa, lo que obligó su traslado y el de su familia a San Sebastián. También fue Delegado Provincial de Agricultura, cargos que testimonian sin duda su enorme valía profesional.

Manolo, casado con Pilar Irusta, fue padre de cinco hijos, tres chicas y dos varones.

Vivía en el primer piso de la calle San Frantzisko nº 2, mientras que nuestra familia lo hacía en el tercero del mismo portal. Esa proximidad vecinal hizo que, lógicamente, se estableciera una estrecha amistad. En mi caso particular, a pesar de que yo era un crío, Manolo siempre me trató con cordialidad y afecto. Su centro de trabajo estaba en el laboratorio veterinario municipal que estaba ubicado en la antigua Plaza del Mercado al fondo a



Animalia hezitzailea piztien aurrean.
El domador frente a las fieras.

zituen txakurrak txertatzera, eta askotan, Manolok dei egiten zidan laborategira berarekin joateko. Ahal nuen guztian laguntzen nion, bere argibideei jarraikiz.

Txakur jaberaren batek txakur bat baino gehiago ekartzen baldin bazuen txertatzera, nik haietako bati eusten nion, logikoki, txikienari. Baina niretzat esperientzia harrigarriena izaten zen biak Udal Hiltegira joaten ginenekoa. Hiltegia Lerungo zubiaren ertz batean zegoen, Udaleko Obra Lantaldeak gaur egun erabiltzen duen egoitzan. Egia esan, Manoloren jabetzakoa zen “arrautza” autoan, Isetta ospetsuan, joaten ginen beti Hiltegira. Autoa nimiñoa zen, birentzako lekua bakarrik zuen, eta ez zuen aterik alboetan. Ibilgailuaren aurrealdetik sartzen zen barrura. Atea erabat zabaltzen zen barrualdera sartu ahal izateko. Ibilgailu harrigarria zen. Niretzat egiazko abentura zen Toletxegainera auto xeblebre hartan igotzea, ia-ia lurraren arrasean eserita.

Hiltegian, Manolok lanean jarduten zuen bitartean, leku hartan zegoen laborategi txikian jolasten uzten zidan niri. Palankana batean merkurio zorrotada bat botatzen zuen, eta ni entretenitu egiten nintzen, zilar koloreko likidoari eusten saiatzen nintzen bitartean. Egun batean, jolas horrekin zein zoriontsua nintzen ikusirik, merkurioz beteriko botilatxo bat oparitu zidan, etxean jolas egin nezan. Harritu egin nintzen botilatxo haren pisuarekin. Urte batzuk beranduago, eskolan ikasi nuen merkurioaren dentsitatea urarena baino 13 aldiz handiagoa zela, eta burdinarena ia halako bi. Horregatik zen hain pisutsua. Hura izan zen haurtzaroan ilusiorik handiena egin zidan oparietako bat...

Eta itzul gaitezen berriro ere zirkura. Zirkua iristear zegoela iragarri zen herrian. Berriro ere ilusioa borborka. 1962. urtea izango zen; hamar urte izango nituen. Etxeko eskaileretatik behera, Manolo ikusi nuen, etxetik irteten ari zela maletatxo bat eskuan zeramala. *“Txomin, etorri nerekin zirkora. Tigre bat zauritxuta dao”*.

Berriak guztiz hunkiturik, plaza Txikira joan nintzen berarekin. Zirkuko langile batzuk zain zituen; berehala, animalien kaiola

la derecha, según se entraba por el acceso anexo al comercio de Abdón Gabilondo. Allí llevaba la gente los perros a vacunar, y en muchas ocasiones, Manolo me llamaba para ir con él al laboratorio. Le ayudaba en lo que buenamente podía, siguiendo sus instrucciones.

Cuando algún propietario de perros acudía con más de uno a vacunarles, yo sostenía a uno de ellos, lógicamente al de menor tamaño. Pero lo que para mí constituía una experiencia extraordinaria era cuando ambos íbamos al Matadero Municipal. Éste estaba situado en un extremo del puente de Lerun, en las dependencias ocupadas actualmente por la Brigada Municipal de Obras. Y es que al Matadero nos dirigíamos siempre en el coche “huevo” de su propiedad, el legendario Isetta. Era un coche minúsculo con solo dos plazas y que carecía de puertas laterales. El acceso era por el frente del vehículo, que se abría totalmente para permitir el paso al interior. Era un vehículo sorprendente. Para mí constituía toda una aventura subir el alto de Toletxe en aquel curioso coche, sentado prácticamente a ras de suelo.

En el matadero, mientras Manolo se dedicaba a su trabajo, a mí me dejaba jugar en un pequeño laboratorio que había allí. En una palangana derramaba un chorro de mercurio y me entretenía intentando retener el plateado líquido. Un día, viendo lo feliz que era yo con ese juego, me regaló un pequeño botellín lleno de mercurio para que jugara en casa. Me sorprendió cómo pesaba aquel botellín. Años más tarde aprendí en el colegio que la densidad del mercurio era 13 veces mayor que la del agua y casi el doble que la del hierro, de ahí su gran peso. Aquel fue uno de los regalos que más ilusión me causó en la infancia...

Y ahora volvamos de nuevo al circo. Se anuncia en la localidad la inminente llegada de un nuevo circo. Otra vez ilusión a raudales. Sería el año 1962; yo tendría diez años. Bajando las

escaleras de mi casa, me encuentro con Manolo que salía de la suya con un maletín. *“Txomin, etorri nerekin zirkora. Tigre bat zauritxuta dao”* (Txomin, ven conmigo al circo. Hay un tigre herido).



Manolo Ubiria eta Pilar Irusta.
Manolo Ubiria y Pilar Irusta.

eskerga bat zegoen lekura eramán gintuzten. Han, lurrean etzanik, arnasestuka, Bengalako tigre handi bat zegoen. Begirada goibela eta makala zuen. Ez zegoen zalantzarik, zaurituta zegoen; odol asko zegoen kaiolako zoruan. Zirkuko zuzendariak eta hezitzaileak, urduritasunez beterik, mota guztietako azalpenak eman zizkieten Manolori. Zirudienez, aurreko egunean, beste herri bateko saioak bukatu ostean, Elgoibarrera joateko prestatzen ari zirela, langileren batek kaiolako atea itxi egin zuen, eta, konturatu gabe, hanketako bat harrapatu zion tigrearri. Animaliak gaua Elgoibarrerako bidean igaro zuen larri zauriturik, eta odol ugari galdu zuen. Gure herrira iritsi arte ez ziren zorigaitzaz konturatu. Harrapatutako hanka askatu zioten. Guztiz zintzilik zegoen, hezurra birrinduta zegoen, eta albaitariari deitu zioten berehala. Kaiolaren kanpoaldetik, Manolok somniferoa injeztatu zion animaliarri arretaz begiratu ahal izateko. Handik gutxira, kaiolan sartu zen hezitzailearekin batera. Gogoan dut barruti hartako isiltasun ikaragarria, Manolok animaliarri beharrezkoak ziren probak egiten zizkion bitartean. Zirrara bizia eragin zidan han ikusteak, animalia basati hura erabateko lasaitasunarekin aztertzen zuen bitartean. Eszena horrek bizi-bizirik dirau nire oroitzapenen artean.

Handik denbora luzera, Manolok ezetz esan zuen buruarekin. Ez zegoen zer eginik, hil egin behar zuten tigre. Une hartan, hezitzailea negarrez hasi zen atsekabe handiz. Negar zotinka, zerbait esaten ari zen niretzat guztiz ezezaguna zen hizkuntza batean, animalia zauritua indarrez besarkatzen zuen bitartean. Manolok injezio hilgarria prestatu zuen, eta hezitzailea aldendu zenean, tigrearri eman zion. Arnasa makaltzen joan zitzaion gutxinaka, eta, azkenean, hil egin zen. Oso egoera tristea izan zen, eta uste dut guztioi izugarri eragin zigula. Animalia eder hura, hogeita lau ordu lehenago pistan bere burua harro erakusten zuen tigre, hilik ikustea mingarria izan zen benetan.

Ondoren, zuzendaria, hezitzailea eta Manolo bazter batean bildu ziren. Erabaki zuten ahalik eta azkarren lurperatu behar zela animalia. Horretarako, langileak, eskuetan pikotxak eta palak harturik, zulo sakon bat egiten hasi ziren gutxi gorabehera Murua gozotegiko lantokia zegoen lekuaren parean. Kontuan izan behar da garai hartan plaza Txikiko zorua ez zegoela urbanizatuta, lur trinkotua besterik ez zen. Lana bukatu

Muy emocionado por la novedad, fui a la plaza Txikita con él. Unos empleados del circo estaban esperándole; rápidamente nos condujeron a una de las enormes jaulas de animales. Allí, tumbado en el suelo y respirando fatigosamente estaba un gran tigre de Bengala. Su mirada era triste y lánguida. Era indudable que estaba herido; había mucha sangre en el suelo de la jaula. El director del circo y el domador, muy excitados, daban todo tipo de explicaciones a Manolo. Por lo visto, el día anterior, al terminar las sesiones en otra localidad y preparándose para ir a Elgoibar, algún empleado cerró la puerta de la jaula sin percatarse que había aprisionado una de las patas del tigre. El animal había pasado la noche y el viaje hasta Elgoibar malherido y perdiendo mucha sangre. Hasta llegar a nuestro pueblo no se percataron del desaguisado. Le liberaron la pata aprisionada -que literalmente estaba colgando, con el hueso destrozado- e inmediatamente llamaron al veterinario. Desde el exterior de la jaula, Manolo inyectó un somnífero al animal para poder examinarlo detenidamente. Al poco rato se introdujo en la jaula acompañado del domador. Recuerdo el impresionante silencio que reinaba en el recinto mientras Manolo realizaba

las pruebas oportunas en el animal. Me impresionó vivamente verle allí, examinando aquel animal salvaje con absoluta tranquilidad. Es otra escena que permanece totalmente nítida entre mis recuerdos.

Al cabo de un largo rato, Manolo negó con la cabeza. No había nada que hacer, el tigre debía ser sacrificado. En ese momento, el domador comenzó a llorar desconsoladamente. Entre grandes sollozos, hacía comentarios en un idioma totalmente desconocido para mí, mientras abrazaba fuertemente al animal herido. Manolo preparó la inyección letal, y cuando el domador se separó, se la aplicó al tigre. Su respiración fue languideciendo poco a poco hasta que finalmente murió. Fue una situación muy triste, creo que a todos nos afectó mucho. Ver sin vida a aquel hermoso animal, un tigre que veinticuatro horas antes se exhibía orgulloso en la pista, fue

verdaderamente doloroso.

A continuación, el director, el domador y Manolo se reunieron en un rincón. Decidieron que había que enterrar al animal lo antes posible. Para ello, los operarios provistos de picos y palas, se pusieron a cavar un profundo agujero más o menos enfrente de



Cary Grant-ek ere bazuen "arrautza" auto bat.
Cary Grant también poseía un coche "huevo".

zutenean, denak hobia zegoen lekurantz abiatu ginen. Zirkuko langile batzuek olana batekin estali zuten tigrearen gorpua, eta anda moduko batzuen gainean jarri zuten garraiatzeko. Nik uste pisu dezente handia izango zuela. Azkenean, Manoloren ikuskaritzapean, gorpua sartu zuten hobian, eta, azkar-azkar, lurrarekin estali zuten. Dena zapaldu zuten indar handiz, eta handik denbora batera, ematen zuen han ez zela ezer gertatu. Ordudanik, Bengalako tigre ikusgarri bat datza gure plaza Txiki maitean.

Eta urteak igaro ziren... Zirkuek Elgoibarrera etortzeari utzi zioten, animaliak desagertu egin ziren zirkuetatik, eta nik miresten nuen Manolo Ubiria 1999an hil zen, 77 urte zituela. Garai hartatik oroitzapena besterik ez zait gelditzen, hamar urteko mutiko baten bizipen hunkigarrien oroitzapen zoriontsua.

Duela gutxi, plaza Txikiko eskola publikoak Aita Agirre kulturguneko eraikina bihurtzeko obrak egiten ari zirela, plazako zorua ere urbanizatu egin zen.

Ikusi nuen hondeamakina bat zulo sakonak egiten ari zela zoruan. Agian tigrea aurkituko zutelako ideiak bultzaturik, makina gidatzen zuenarengana zuzendu nintzen eta galdetu nion ea nik adierazten nion lekua hondeatuko zuten. Ezetz erantzun zidan, ez zutela inguru hura ukituko. *“Ze pena! Izan ere, hor tigre bat dago lurperaturik”* esan nion. Hondeamakinakoak jarri zuen aurpegia ikusirik, burutik nahiko gaizki nengoela ondorioztatuko zuen. Buelta erdia egin, eta ezer esan gabe, lanean jarraitu zuen.

Baina egia da plaza Txikian tigre bat dagoela lurperaturik. Nik badakit, eta orain, irakurle maitea, zuk ere badakizu.

San Bartolome jai zoriontsuak!



donde estaba el obrador de la pastelería Murua. Hay que tener en cuenta que en aquella época el suelo de la plaza Txikita no estaba urbanizado, era simplemente tierra compactada. Cuando terminaron su labor, nos dirigimos todos a la zona del foso. Varios operarios del circo envolvieron el cuerpo del tigre con una lona y lo colocaron en una especie de andas para transportarlo. Supongo que tendría un peso más que considerable. Por fin, bajo la supervisión de Manolo, introdujeron el cuerpo en el foso y rápidamente lo volvieron a tapar con tierra. Pisotearon todo enérgicamente y al cabo de un rato, parecía que allí no había ocurrido nada. Desde entonces, un formidable tigre de Bengala reposa en nuestra querida plaza Txikita.

Y pasaron los años... Los circos dejaron de venir a Elgoibar, los animales desaparecieron de los mismos y mi admirado Manolo Ubiria falleció en 1.999, a los 77 años. De toda aquella época no me queda más que el recuerdo, un recuerdo feliz de las emotivas vivencias de un crío de diez años.

Hace escasas fechas, con motivo de las obras en las escuelas públicas de la plaza Txikita para reconvertir el edificio en Aita Agirre Kulturgunea, se urbanizó también el suelo de la plaza. Vi que una excavadora estaba haciendo profundos agujeros en el terreno. Animado por la idea de que quizás dieran con el tigre, me dirigí al que manejaba la máquina y le pregunté si iban a excavar en la zona que yo le señalaba. Me respondió que no, que aquella parte no iba a ser tocada. *“¡Qué pena! Es que*

ahí hay un tigre enterrado” le comenté. Por la cara que puso el de la excavadora, debió deducir que yo estaba bastante mal de la cabeza. Dio media vuelta y sin decir nada, continuó con su labor.

Pero es cierto que en la plaza Txikita hay un tigre enterrado. Yo lo sé y ahora, estimado lector, tú también lo sabes.

¡Felices fiestas de San Bartolomé!



**GORA
GUZTION
JAIK!**



ELGOIBAR
UDALA | AYUNTAMIENTO



GIPUZKOA
Foru Aldundia · Diputación Foral